

Protokoll

EUSKALEMA BILERA

2010ko otsailaren 26an, Bilbon, Hikatenean

Parte hartzaileak: Zuriñe Sanz , Naroa Zubillaga, Edorta Matauko, Ibon Uribarri, Rasso Enzenbach, Petra Elser, Elena Martinez

Gaia: euskaldunak vs. alemanak

Nahiz eta hautatutako materiala aurrean eduki (Irati Elorrietaren artikulu batzuk, Lourdesek horiei buruz bidalitako komentarioak, "Ihes betea" nobela) ez ginen hortik abiatu (prestatutako materiala hurrengo baterako geratuko zaigu...) baizik eta hori baino gehiago, oro har, gaiaren galdera garrantzitsuenak zeintzuk diren argitzen saiatu ginen.

Historian zehar, garai desberdinetan, harreman estua izan zuten intelektual alemanek eta euskaldunek, batez ere, elizgizonek eta filologoek. Horren lekuko dira hainbat itzulpen, batez ere alemanatik euskarara itzultitako obra anitz.

Aztertzeko moduko gaietako bat litzateke, adibidez, nondik nora sortu zen filologoaren liluramendu hori (aleman hizkuntzalariak interes handia erakutsi zuten euskararekiko) edo bi herrietako jesuiten artean egondako hurbiltasuna, adibidez.

Beste abiapuntu bat da elizaren erreforma eta kontrarreforma. XVI. mendean Albreteko Joana III.aren gortean euskara zen irakaskuntzarako hizkuntza eta Biblia euskarara itzultzeko agindu zuten, Calvin eta Europako elizaren erreformaren mugimenduaren eraginez. Albreten semea, ordea, katolizismora itzuli zen eta, ondorioz, kontrarreforma etorri zen. Beharbada orduantxe galdu zen lehenengo aldiz euskara idatz-hizkuntza (eta estatu-hizkuntza...) bihurtzeko aukera.

Alemanian kultura protestanteak gizartean, oro har, eragin handia izan duenez, alderdi askotan bereizten da alemanen eta euskaldunen izaera gaur egun ere.

Nazien garaian ere elkarrenganako nolabaiteko liluramendua ere egon zen: zenbait euskaldun naziengana hurbil zen ideologikoki (Jon Mirande), eta bestetik, ba omen dira naziek euskal arrazarekiko zuten interes berezia erakusten duten zenbait dokumentu.

Beste abiapuntu bat "jatorrizko euskal pentsamenduaren bilaketa" izango litzateke. Goian aipatututako euskaldunen izaera eta kultura eta alemanen izaera eta kultura konparatzen baldin baditugu, euskaldunengan beste kulturek izan duten eragina aztertzen bukatzen dugu. Interesgarria izango litzateke, ordea, euskaldunen berezko kultura zein den aztertzea (kristau-aurrekoa) eta

ikustea, ea berezko izaera horretatik ezer geratzen den gaur egun, non antzematen diren aztarna horiek etab. Horretarako, adierazle batzuk izango lirateke "hika" forma (zuka baino zaharragoa, gizakiaren parekotasuna), lekuen izenen garrantzia (izadia eta lurrarekiko lotura), bizimodua (komunitatearen garrantzia: familia, koadrila). Interesgarria izango litzateke aztertzea zein neurritan mantentzen duen gaur egun ere jatorrizko euskal izaera horrek bere eragina eta non islatzen den, literaturan adibidez. Gai horri helduta, "hizkuntzak herri baten memoria gordetzen du" tesia izan liteke abipuntua (pentsamenduan eta mundu-ikuskeran, alegia, ez bakarrik hizkuntzalaritzaren aldetik).

Iritzi desberdinak sortu ziren, hizkuntzak duen zereginari buruz:

"Bileran azpimarratu zen, alde batetik, ez dela ahaztu behar hizkuntza, funtsean, komunikazio-tresna dela, eta hizkuntza guztietan dagoela jatorrizko hizkuntza (muinekoa) eta kanpoko eraginak.

Bestalde, gaineratu zen, hizkuntza komunikazio-tresna dela, baina, hain zuzen ere, hizkuntza hori hitz egiten dutenen artean. Horrela, kanpoko eraginak jasotzearena, maileguak bereganatzearena esaterako, ez da hizkuntzaren komunikazio-tresnaren izaerari dagokion zerbait, baizik eta kulturen arteko harremanei dagokien zerbait, hau da, kanpotarrekiko harremanen arlokoa. Gauza bat da barruko komunikazioa nola gauzatzen den, bestea, kanpotarrekikoa."

Beste abiapuntu bat izango litzateke gaurko gizartearen konparaketa. Ea oraindik oinarritzko diferentziak existitzen diren edo, dagoeneko, (globalizazioa medio...) gizarte biak oso antzekoak diren. Horretarako, lagungarria izango litzateke, izan ere, saio honetarako hautatu genuen materiala eta, horretaz gain, bizipen nahiz lekukotza pertsonalak eta literaturan alemanei nahiz euskaldunei buruz egin den irudikapena.

"Ihes betea" eleberria litzateke bereziki interesgarria: zergatik hautatu zuen idazleak Alemania eta protagonistak bizi duen nortasun gatazka? Zein neurritan dago euskal gizartearekiko lotura metaforikoa?

Beraz, eta laburpen modura, esan behar dugu bileran hainbat diziplinatan sartu ginela, hala nola, antropologian (familiaren barruko antolakuntza), filosofian (edo ontosemantikan, adibidez, euskararen "huts"aren alor semantikoaren hedadura eta beronek euskal pentsamoldearekin dituen harremanak), pentsamenduaren historian (izan ere, garai bateko alemanen euskararekiko jakin-minak hizkuntzari buruzko sinesmen batekin izan zuen zerikusia, alegia, hizkuntza bakoitza, tresna hutsa baino, mundu ikuskera baten sortzailea delako sinesmenarekin), hizkuntzalaritzan, erlijioaren historian, historia politikoan, literaturan (eleberri desberdinetan nola agertzen zaizkigun bi munduak

islatuta). Alegia, ideiak eta gaiak nahi adina dauzkagu, nondik hasi eta hartutako gaiari zein alderditatik heldu nahi diogun erabakitzea falta da.

Proposamenak hurrengo bileretarako:

- “Alemanen gaua”: Prosa eta poesia irakurketa, musika eta solasaldia (Harkaitz Cano eta Karmele Jaiorekin, besteak beste...) (Gasteizen)
- Poesia liburuxka elebidun baten edizioa (hori beste mezu batean esplikatuko dut)
- Herta Müller-en laginen konparaketa
- Alemaniako literatura eta euskal gatazka

Protokoloaren egilea: Petra Elser, 2010-02-28
(Naroa Zubillaga eta Elena Martinezen elkarlanarekin)